



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OIHANBERRI, SA 2004-2006 KITAPENEAN TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), Eusko Legebiltzarrak eskatuta, txostena egin du, bi alderdi hauek aztertzeko: batetik, Sociedad Oihanberri, SA sozietateak 2004tik 2006ra bitartean egindako ekonomia eta finantza jarduera; bestetik, aplikagarri zaion legedia zenbateraino bete den. Txostena aho batez onartu dute HKEEko osoko bilkurako kideek.

Txostenak, hasteko, sozietateak bizi duen desegite prozesua deskribatzen du. Prozesu hori 2004ko abenduaren 2an hasi zen, Administrazio Kontseiluak akziodunen batzar nagusiari proposatu zionean desegin zedila sozietatea. Sozietatearen merkataritza jarduera eta langileekiko lan harremanak 2005ean iraungi zituzten.

Legezkotasunaren aldetik, HKEEk iritzi orokorra eman du sozietateak hiru ekitaldian izan duen jarduketari buruz. Adierazi duenez, arrazoizko eran bete da indarrean den araudia. Iritzi orokor horri, hainbat ñabardura gehitu dio: publizitaterik eza, zerbitzu kontratu batean; lehia ez sustatu izana, beste batean; eta pertsona bat berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak errespetatu gabe kontratatu izana. Era berean, hainbat zerga eta erregistro betebeharrak betetzean atzerapenak izan direla aipatu du.

Urteko kontuez den bezainbatean, 2006 ekitaldiari buruz, Epaitegiak aldeko iritzia du, txostenean zehaztutako salbuespenen bat salbu. Aitzitik, 2005 ekitaldiari dagokionez, iritzia kontrakoa da, bi arrazoi nagusi direla kausa: ibilgetua ez zegoela erregistratuta likidazio bidean zen enpresaren irizpidearekin; eta sozietate-kapitalaren handiagotze bat, eskrituratu aurretik kontabilizatu zela. Azkenik, 2004ko kontuei buruz, HKEEk ez du iritzirik eman; izan ere, kontuak formulatzeko unean, ez zen aintzat hartu sozietatea desegiteko erabakia.